



KONTZEJUPETIK

Margari Baztarrika ... Tabernaria

«Ahaleginak egiten ditugu umore onean egoteko, baina zaila da»

Oñatiko jaietan denbora gehien irekita egongo den taberna, ziurrenik, Izarraitz izango da. Goizetan, gosariak emateko irekitzen dute, eta gaueko ordu txikietan ere hala jarraitzen du, parranderoen egarria asetzen. Tartean, pintxoak jatera eta poteoan datozenak. Margarik eta bere familiak daramate taberna.

...

Hogei urte dira jadanik Margarik eta bere familiak Izarraitz tabernan dihardutela. «Oraintxe, irailean, hogei urte bete ditugu, irailean bederatzi».

■ **Zu zeu ez zara Oñatin jaiotakoa; zenbait urte daramatzazu hemen?**

Ni Bergaran jaiotakoa naiz, urte askotan Azkoitian bizi izandakoa, eta orain, 25 urte daramatzat Oñatin bizitzen. Aurrena

Txaketua hartu genuen alokairuan, eta bertan bost urte egin genituen; gero oraingo hau ireki genuen. Ni oso pozik niago Oñatin, oso gustura.

■ **Iraila heltzen denean oñatiarrok sanmigelak heltzeko desiratzen egoten gara. Eta tabernariak?**

Nik uste dut jaien aurretik okerrago egoten garela gero jaiak heltzen direnean baino. Hortxe egoten gara pentsatzen nola izango diren gauzak eta zer egingo

dugun. Behin iraila heltzen denean, jaien begira jartzen gara, lehenbailehen pasatzeko gogoarekin. Egun gogorrak izaten dira. Aurten bi aste bukaera tokatzen dira, eta hori hobea da gure lana antolatzeke. Gorputza ere hobeto ibiltzen da, askoz deskantsatuago.

■ **Nola antolatzen zarete zuen tabernan hainbeste ordutan lanean aritzeko?**

Batzuk goizean goiz samar irekitzen dugu, eta gauean libratu egiten dugu. Gauean aritzen direnek, berriz, goizean lo egiten dute. Normalean ni beste mutil batekin goizean hasten naiz, eguerdi aldera arte; eguerdian eta arratsaldean, goizean aritu garenok eta gauean arituak txandatzten gara, eta gauean gazteak egoten dira, normalean nire bi semeak eta beste bi zerbitzari, eta senarra ere bai.

■ **Barraren barruko aldetik nola bizitzen dira jaiak?**

Hortik oso diferente ikusten dira gauzak. Hain distantzi gutxian alde handia dago. Jende guztia kanpoan giro onean, parrandan ikusita, barruan lanean ari garenok ahalegintzen gara umore onean egoten, baina zaila izaten da. Gorputzak ere azkeneko egunetarako nabaritu egiten du nekea, eta azkeneko egunak izaten dira lan gehien ematen dutenak. Baina urte askotan ibili gara horrela, eta aurtengoak pasatzeko ere mentalizatuta gaude.

SANMIGELAK

«Nik uste dut jaien aurretik tabernariok okerrago egoten garela gero jaiak heltzen direnean baino»

LO EGIN

«Jaietan etxeko denok lauzpabost ordu egingo ditugu lo egunero; bost ordu egitera heltzen bagara, ondo»

■ **Izaten al duzu astirik tabernatik irteten eta jaietan ibiltzeko?**

Ni normalean oso gutxi irteten naiz, bueltatxoren bat plazaraino. Libratzen dudanean, normalean nire etxera joaten naiz deskantsatzera. Semeak bai, asko ez, baina arratsaldean eta gauean, ahal denean, pitintxo bat libratzen dira; ordu eta erdi, bi ordu edo izaten dituzte, gehiago ez.

■ **Oñatiko jaiak zer iruditzen zaizkizu?**

Oñatin giro ona egoten da, eta jende asko ibiltzen da, kanpoko jendea ere asko. Festa onak iruditzen zaizkit. Herri Eguna, adibidez, oso egun polita izaten da, eta Bixamon eguna ere bai.

■ **Jaietako egunetan zenbat ordu egingo dituzu lo?**

Batez beste, egunero lau edo bost ordu, ez gehiago. Nik bakarrik ez, etxeko denok igoal, bost ordu egitera heltzen bagara, ondo, baina gutxiagorekin ere bai egun batzuetan.



Galduko ote duzu aukera hau?

■ Opel Corsa

1.363.000 pta*.



Opel Astra

1.804.000 pta*.

www.opel.es OPEL CREDIT

123

1, 2, 3 aukerak: Beti auto berria izateko erarik errazena.

* Fabrikatzaileak Penintsularen eta Balearren gomendatutako prezioak. Berrak: gasolina, BEZA, matrakulazio zerga, Plan Preter gasolina berunarekin duten ibilgailuentzat, eta promozioko deskontuak modelo hauetarako: Corsa Club 1.2 3 ate 16 b 75 zp eta pakete elektrikoa (8.192 euro), Astra Club 1.6 3 ate 8 b 84 zp (10.782 euro). Goleko modelo horiek Elegance akaberari dagozkio. Baldintzak irailaren 28a baino lehen, 2001 urteko modelo bakoitzeko auto guztiak bukatu arte.

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g.

Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu Ofiziala

BEREZAO, S.A.

Berezao Auzoa, 24. Tf: 943 71 80 85. OÑATIN

OPEL